

EAEKO AUZITEGI NAGUSIKO GOBERNU SALAREN BATZORDEAK 2024KO AZAROAREN 22AN HARTUTAKO ERABAKIAK

BERTARATUAK:

Presidente

Ignacio Jose Subijana Zunzunegui jauna

Magistratuak:

María Mercedes Guerrero Romeo andrea

Reyes Goenaga Olaizola andrea

Aner Uriarte Codon jauna

Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jauna

Gobernu-idazkaria

Blanca Rosa Barbero Blanco andrea

1.- Magistratuak eta epaileak

ORGANO JUDIZIALEI BURUZKO GAIAK

1.1 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO ZIBILEKO ETA ZIGOR-ARLOKO SALAREN OSAERA, FUNTZIONAMENDUA, PONENTZIAK ESLEITZEKO ARAUAK ETA BJLOKO 77. ARTIKULUKO SALA BEREZIAN PARTE HARTZEA 2025ERAKO

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Zibileko eta Zigor-arloko Salaren osaerari eta funtzionamenduari buruzko proposamenaren berri eman zaio Salari, bai eta bertan destinatuta dauden magistratuei eta BJLOko 77. artikuluko Sala Berezian parte hartu behar duten magistratuei txandakatu beharreko ponentziak esleitzeko arauen berri ere.

Banaketa-arauei dagokienez, Salak, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki du proposamena onartzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aurkeztea eta jarduketa judizialen alderdi osagarriei buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 159.2 artikuluan eta Auzitegietako Gobernu

Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 12.6. artikuluan aurreikusitako baldintzetan hedatzea.

1.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAKO ATALEN OSAERA, BANAKETA-ARAUAK ETA PONENTZIA-ESLEIPENAK, 2025ERA KO

Salari ezagutarazi zaio Auzitegi Nagusi honetako Administrazioarekiko Auzien Salako atalen artean auziak banatzeko araei buruzko proposamena, bai eta ponentziak esleitzekoa ere.

Banaketa-arauei dagokienez, Salak, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki du proposamena onartzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aurkeztea eta jarduketa judizialen alderdi osagarriei buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 159.2 artikuluan eta Auzitegietako Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 12.6. artikuluan aurreikusitako baldintzetan hedatzea.

1.3 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO LAN-ARLOKO SALAKO ATALEN OSAERA, BANAKETA-ARAUAK ETA PONENTZIA-ESLEIPENAK 2025ERA KO

Salari ezagutarazi zaio Auzitegi Nagusiko Lan-arloko Salako atalen artean auziak banatzeko araei buruzko proposamena, bai eta ponentziak esleitzekoa ere.

Banaketa-arauei dagokienez, Salak, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki du proposamena onartzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aurkeztea eta jarduketa judizialen alderdi osagarriei buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 159.2 artikuluan eta Auzitegietako Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 12.6. artikuluan aurreikusitako baldintzetan hedatzea.

1.4 GIPUZKOAKO ETA ARABAKO PROBINTZIA AUZITEGIETAKO ATALEN OSAERA, BANATZEKO ARAUAK ETA PONENTZIAK ESLEITZEA 2025ERA KO.

Gipuzkoa eta Arabako Probintzia Auzitegietako atalen 2025erako osaerari, banaketa-arauei eta ponentzia-esleipenari buruzko proposamenaren berri eman zaio Salari; Auzitegiek berek igorri dute proposamen hori, Auzitegietako Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 4b) artikuluan eta Botere Judizialaren Lege Organikoko 152.1.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Banaketa-arauei dagokienez, Salak, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki du proposamena onartzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aurkeztea eta jarduketa judizialen alderdi osagarriei buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 159.2 artikuluan eta Auzitegi-tako Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 12.6. artikuluan aurreikusitako baldintzetan hedatzea.

1.5 2025. URTEKO ORDEZKAPEN-PLANAK.

Salari aditzera eman zaizkio kide anitzeko organo judizialek eta pertsona bakarreko organo judizialek bidalitako komunikazio hauek

KIDE ANITZEKO ORGANOAK:

- EAEko ANko Zibileko eta Zigor-arloko Sala
- EAEko Auzitegi Nagusiko Lan-arloko Sala
- EAEko ANko Administrazioarekiko Auzien Sala.
- Arabako Probintzia Auzitegia
- Bizkaiko Probintzia Auzitegia
- Gipuzkoako Probintzia Auzitegia

KIDE BAKARREKO ORGANOAK:

Arabako epaitegiak:

- Gasteizko epaitegiak.
- Amurrioko epaitegiak

Bizkaiko epaitegiak:

- Bilboko epaitegiak
- Balmasedako epaitegiak
- Barakaldoko epaitegiak
- Durangoko epaitegiak
- Gernikako epaitegiak
- Getxoko epaitegiak

Gipuzkoako epaitegiak:

- Donostiako epaitegiak
- Azpeitiko epaitegiak

- Bergarako epaitegiak. Eibarko epaitegiak
- Irungo epaitegiak
- Tolosako epaitegiak

Salak behin-behingo onartu ditu bidalitako ordezkapen-planak, honako ohar hauekin:

- Durangoko epaile dekanok 2024ko azaroaren 8an emandako gobernu-erabakian jasota dagoen Durangoko Epaitegiei buruzko Ordezkapenen Planari dagokionez, Salak erabaki du Durangoko Epaileen Batzarrari helaraztea Urteko Ordezkapen Planaren seigarren puntuan zehazten diren seinalamenduen bateraezintasunek izan behar duten salbuespenezko izaera, aipatutako Planaren bigarren eta laugarren puntuan ezarritako asteko txandakako txanda-sistema dela-eta.

- Barruti judizial honetako ordezkapen-planaren zazpigarren puntuari dagokionez, jurisdikzio-luzapenei buruzkoa, Salak erabaki du BJLOren 212.2 artikuluan jasotako erregulazioari jarraitu behar zaiola.

- Gernikako epaitegiei buruzko Ordezkapen Planari dagokionez, Salak epaileen batzarrari honako hau helaraztea erabaki du: bosgarren puntuan jurisdikzio-luzapenei buruz jasotako gogoetei dagokienez, BJLOren 212.2 artikuluan jasotako erregulazioari jarraitu behar zaiola.

- Balmasedako epaitegiei buruzko ordezkapen-planari dagokionez, Salak epaileen batzarrari honako hau helaraztea erabaki da: baja medikoetatik eratorritako ordezkapenen kasuan, Gobernu Sala honek onartutako ordezeko epaileei dei egiteko irizpideei jarraitu behar zaiela.

Salak erabaki du ordezkapen-planak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira bidaltzea, hala badagokio, behin betiko onar ditzan, bai eta, Gobernu Organoei buruzko uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorritz, epaile-batzordeen aktak ere, jakinaren gainean egon daitezen eta legezkotasuna kontrola dezaten.

1-6 – 2025 URTEAN BORONDATEZKO ORDEZPEN EGITEKO ESKAERAK

Urteko ordezkapen-planetan borondatez parte hartzeko aurkeztutako eskaeren berri eman zaio Salari, eta honako hauek horietan sartzeko eskatu da:

Jose Antonio Gonzalez Saiz jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako magistratua, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ordezkapenak egiteko.

Trinidad Cuesta Campuzano andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako magistratua, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ordezkapenak egiteko.

Irene Rodriguez del Nozal andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako magistratua, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ordezkapenak egiteko.

Carlos Cardenal del Peral jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako magistratua, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ordezkapenak egiteko.

Juan Carlos Benito-Butron Ochoa jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salako magistratua, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salan ordezkapenak egiteko.

Pablo Sesma De Luis jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan-arloko Salako magistratua, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan-arloko Salan ordezkapenak egiteko.

Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salako magistratua, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salan ordezkapenak egiteko.

Jose Felix Lajo Gonzalez jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salako magistratua, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salan ordezkapenak egiteko

Ana Garcia Orruño andrea, Bilboko Lehen Auzialdiko 1 zk.ko Epaitegiko magistratua, gaur egun Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Laugarren Atalean funtzioak aldatutako zerbitzu eginkizunean dagoena, Bizkaiko Probintzia Auzitegian jurisdikzio zibilean ordezkapenak egiteko.

Marcos Bermudez Aila jauna, Bilboko Merkataritza-arloko 1 zk.ko Epaitegiko magistratua, Bizkaiko Probintzia Auzitegian jurisdikzio zibilean eta Bizkaiko merkataritza-epaitegietan ordezkapenak egiteko.

Leticia Badiola Perez andrea, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren-arloko Bilboko 1 zk.ko Epaitegiko magistratua, Bilboko barruti judizialean ordezkapenak egiteko, jurisdikzio-ordena hauetan: Zigor-arloko jurisdikzioa, adingabeak, espetxe-zaintza eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloa.

Maria Begoña San Martin Larrinoa, Bilboko Adingabeen 1 zk.ko Epaitegiko magistratua, Bilboko Barruti Judizialean, jurisdikzio-ordena hauetan ordezkapenak egiteko: Adingabeak eta espetxe-zaintza.

Pedro Santiago Romero Buck Arstad jauna, Donostiako Zigor-arloko 4 zk.ko Epaitegiko magistratua, Donostiako Barruti Judizialean, jurisdikzio-ordena hauetan ordezkapenak egiteko: Zigor-arloa eta adingabeak, zigor-arloko epaitegiak, adingabeen epaitegi bakarra, instrukzioko epaitegiak.

Maria Francisca Fustero Aznar andrea, Donostiako Zigor Arloko 1 zk.ko Epaitegiko magistratua, Donostiako Barruti Judizialean, jurisdikzio-ordena hauetan ordezkapenak egiteko: Zigor-arloa eta Adingabeak

Pedro Jose Malagon Ruiz, Donostiako Merkataritza-arloko 1 zk.ko Epaitegiko magistratua, Donostiako Barruti Judizialean, jurisdikzio-ordena hauetan ordezkapenak egiteko: Merkataritza eta zibila, merkataritza-arloko eta lehen auzialdiko epaitegiak.

Daniel Sanchez de Haro jauna, Donostiako Merkataritza-arloko 2 zk.ko Epaitegiko magistratua, Donostiako Barruti Judizialean, jurisdikzio-ordena hauetan ordezkapenak egiteko: Merkataritza-arloa eta zibila.

Emilio Lamo de Espinosa Vazquez de Sola jauna, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegiko magistratua, Bilboko eta Gasteizko barruti judizialean ordezkapenak egiteko, jurisdikzio-ordena hauetan: Administrazioarekiko auzien arloa, administrazioarekiko auzien epaitegiak.

Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jauna, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 5 zk.ko Epaitegiko magistratua, Bilboko barruti judizialean ordezkapenak egiteko, honako jurisdikzio-ordena hauetan: Administrazioarekiko auzien arloa, Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegiak.

Amaia del Cid Madariaga andrea, Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zenbakiko Epaitegiko magistratua, Bilboko Barruti Judizialean ordezkapenak egiteko, honako jurisdikzio-ordena hauetan: Administrazioarekiko Auzien arloa, Merkataritza-arloa eta Adingabeak.

Maria de Blas Piñeiro andrea, Bergarako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegiko magistratua, Bergarako barruti judizialean ordezkapenak egiteko, jurisdikzio-ordena hauetan: Zibila eta zigor arloa

Salak erabaki du eskaerak aurkeztutzat ematea, bertan zehaztutako moduan, eta behin-behinean onartzea, bai eta BJKNra bidaltzea ere, BJLOko 210.3 artikuluan aurreikusitako ondoreetarako. Onartu ondoren, dekanu bakoitzari borondatezko magistratu bakoitzaren prestasuna helaraziko zaio.

1.7 GASTEIZKO LEHEN AUZIALDIKO ETA MERKATARITZA-ARLOKO EPAILEEN BATZARRA

Gasteizko Lehen Auzialdiko eta Merkataritza-arloko Epaileen Batzarraren 2024/11/14ko aktaren berri eman zaio Salari. Hona hemen, hitzez hitz:

LEHENENGOA. - Gai-zerrendako lehenengo puntuari dagokionez:

Lehen Auzialdiko 4 eta 8 zenbakiko epaitegietak erreten zibilaren ordezkapenaren inguruan, Jose Luis Nuñez Corral jaunak, Gasteizko Lehen Auzialdiko 5 zk.ko Epaitegiko magistratuak, egindako proposamen hau aztertu eta bozkatzeari:

Borondatezko ordezkapenen kasuetan izan ezik, Lehen Auzialdiko 1., 2., 3., 5., 6., 7. eta 9. zenbakiko magistratuak, kontrakorik adierazten ez badute, ez dute inolako eginbiderik egingo erreten gisa Lehen Auzialdiko 4. eta 8. zenbakiko epaitegiak, baldin eta epaitegi horietako titularrek beren gauzetarako hiru eguneko baimena badute barneratzeen eta ezintasunen guardia dagokien hilabeteen.

Adierazitako epaitegi horietako titularrak, barneratzeen eta ezintasunen guardia horretan daudenean, elkarren artean ordezkatzeko dira haietako bat guardia-aldi horretan zerbitzuak ematen ari denean eta norberaren eginkizunetarako hiru eguneko baimena lortzen duenean, eta inolako erretetik ez du zerbitzuaren beharrak beteko, EAEANko Gobernu Salak aurreikusitako ordezkapen-kasuetan izan ezik.

4 eta 8 zenbakiko auzialdiko magistratuak akats formala alegatu dute Batzarraren deialdian, BJLOren 170.2 artikulua eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuraren 2000ko uztailaren 26ko Erabakiaren bidez onartutako 1/2000 Epaitegiak Gobernu Organoen Erregelamenduko 66.1 artikulua urratu direlako. Izan ere, deialdia magistratu bakar batek (kasu honetan, Lehen Auzialdiko 5 zk.ko Epaitegiaren titularrak) eskatuta egin da, eta manu horiek ezartzen dutenez, Batzardea epaile dekanok deitzen ez badu, deialdia batzarraren zuzenbideko kideen laurdenak eskatuta egin behar da, eta kasu honetan ez da gertatu.

Batzarrak erabaki du 1. puntuko proposamena ez dela bozkatzeko, deialdian formazko akats hori dagoelako. Hala ere, Batzarra berriro deitu ahal izango da, horretarako baldintza formalak errespetatuz.

BIGARRENA.- Gasteizko lehen auzialdiko eta merkataritza-arloko epaitegiak 2025erako ordezkapen-plana onartzea (1. ERANSKINA)

Aho batez onartu da.

Batzarrak horren guztiaren berri izan du eta akta hau onartu du.

HIRUGARRENA. Galde-eskeak.

Ez dago galde-eskerik. "

- Gai-zerrendako lehenengo puntuari dagokionez, Sala jakinaren gainean geratu da
- Gai-zerrendako bigarren puntuari dagokionez, sala jakinaren gainean geratu da, eta Gobernu Sala honek 2025eko urteko ordezkapen-planari buruz erabakitakoa jarraitu du

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezatasuna kontrola dezan.

1.8 BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN BATZORDE IRAUNKORRAK 2024/11/12AN HARTUTAKO ERABAKIAREN BERRI EMATEA, ZEINA BIZKAIKO PROBINTZIA

AUZITEGIKO LAUGARREN ATALERAKO ANA GARCÍA ORRUÑO ANDREAREN ALDEKO FUNTZIOAK ALDATUTAKO ZERBITZU- EGINKIZUNAREN NEURRIA BERRITZEARI BURUZKOA BAITA

Salari jakitera eman zaio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Batzorde Iraunkorrek 2024/11/12ko bileran hartutako erabakia,

Bertan Bizkaiko Probintzia Auzitegiko 4. Atalean titularra den Ana Belen Iracheta Undagoitia aldi baterako absentzia betetzeko neurri bat adostu da, zeina Auzitegi Goreneko Kabinete Teknikoan funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizunean baitago. Neurri hori Bilboko Lehen Auzialdiko 1 zk.ko Epaitegiko titularra den Ana García Orruño andrearen aldeko funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna berritzean datza.

1.9 BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO BATZORDE IRAUNKORREKO LANGILE JUDIZIALEN ZERBITZUAK BIDALITAKO JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA, EMANDAKO ZERBITZUENGATIK PABLO TORRALBA LIZASOAINI DIETAK ETA JOAN-ETORRIEN GASTUAK KOBRATZEARI BURUZKOA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko langile judizialen zerbitzuak 2024ko urriaren 29an igorritako komunikazioaren berri eman zaio Salari. Komunikazio hori Gasteizko Lan-arloko 2 zk.ko Epaitegiko Pablo Torralba Lizasoain jaunaren alde, Gasteizko Lehen Auzialdiko 3 zk.ko Epaitegian emandako zerbitzuengatik dagozkion kalte-ordainen gaineko dietak eta lekualdatze-gastuak jasotzeari buruzkoa da, maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Sala jakinaren gainean dago

1.10 BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO BATZORDE IRAUNKORREKO LANGILE JUDIZIALEN ZERBITZUAK BIDALITAKO JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA, ZEINA NICOLE HERNANDEZ GONZALEZEK EMANDAKO ZERBITZUENGATIK DIETAK ETA JOAN-ETORRIEN GASTUAK KOBRAZTEARI BURUZKOA BAITA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko langile judizialak 2024ko azaroaren 12an bidalitako komunikazioaren berri eman zaio Salari. Komunikazio hori maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera bidezkoak diren kalte-ordainen gaineko dietak eta bidaia-gastuak kobratzeari buruzkoa da eta egun Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Bosgarren Atalean zerbitzu-

eginkizunean dagoen Maria Esther Gonzalez Rodriguez magistratuaren aldekoa Bilboko Lehen Auzialdiko 9 zk.ko Epaitegian emandako zerbitzuengatik.

Sala jakinaren gainean dago

2.- Ordezko magistratuei eta ordezkoei buruzkoa

2.1 - AMURRIOKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 1 ZK.KO EPAITEGIRAKO CRISTINA RODRIGUEZ RUIZ ANDREARI EGINDAKO DEIA BERRESTEA.

Salak aho batez erabaki du berrestea Amurrioko epaile dekanok egindako deia, Cristina Rodríguez Ruiz andreak ordezkoei epaile kargua bete dezan udalerri horretako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegian 2024ko azaroaren 27, 28 eta 29an, titularra CU24107 prestakuntza-ikastarora joateko hautatua izan delako.

Gobernu Sala honek ezarritako irizpideen arabera kanpoko ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoelako berresten da deia.

Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.

Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 egunez iragarki-taulan argitara dadin.

2.2 - IRUNGO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 4 ZK.KO EPAITEGIRAKO RAFAEL MARTINEZ GUTIERREZ JAUNARI EGINDAKO DEIA BERRESTEA.

Salak aho batez erabaki du Irungo epaile dekanok egindako deia berrestea, Rafael Martínez Gutierrez jaunak ordezkoei epaile kargua bete dezan udalerri horretako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegian, 2024ko azaroaren 28an, Justiziako Hezkuntza programaren lehen fasean prestakuntza-jardunaldi bat egiteagatik.

Gobernu Sala honek ezarritako irizpideen arabera kanpoko ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoelako berresten da deia.

Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.

Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 egunez iragarki-taulan argitara dadin.

2.3 PRESIDENTEAREN 2024KO AZAROAREN 6KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, CLARA IBARBIA CHURRUCA ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 6an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikularekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

“Donostiako epaile-magistratu dekanok jn.ak CLARA IBARBIA CHURRUCA ordezkoko epailearen alde egindako deia berri eman da. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoko 160.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, presazko arrazoiei dagokienez, erabaki da Donostiako epaile-magistratu dekanok egindako deia berrestea CLARA IBARBIA CHURRUCA andreak ordezkoko epailearen kargua bete dezan udalerri horretako Lehen Auzialdiko 6 zk.ko Epaitegian, urriaren 30etik azaroaren 4ra, organo horren titularrari BJLOko 374 artikularen XXX eman zaiolako.

Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 egunez iragarki-taulan argitara dadin.

Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.

2.4 - PRESIDENTEAREN 2024KO AZAROAREN 08KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, MARIA CRISTINA LOPEZ DE LA FUENTE ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 08an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikularekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

«Barakaldoko epaile-magistratu dekanok MARIA CRISTINA LOPEZ DE LA FUENTE ordezkoko epailearen alde egindako deia berri eman da. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, Salak erabaki du Barakaldoko epaile-magistratu dekanok egindako deia berrestea MARIA CRISTINA LOPEZ DE LA FUENTE andreak udalerri horretako Instrukzioko 2 zk.ko Epaitegian ordezkoko epaile gisa jardun dezan, epaile titularra azaroaren 13an eta 16an ikastaro batera joan ahal izateko.

Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

*Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanoari, 30 egunez iragarki-
taulan argitara dadin.*

Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran".

Presidenteak erabaki, agindu eta sinatzen du, eta nik, Gobernu idazkariak, fede ematen dut. "

2.5 - PRESIDENTEAREN 2024KO AZAROAREN 12KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, RAFAEL MARTINEZ GUTIERREZ ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 12an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

"Tolosako epaile-magistratu dekanoak, RAFAEL MARTINEZ GUTIERREZ ordezeko epailearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua premiazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, erabaki da Tolosako epaile-magistratu dekano and.ak egindako deia berrestea RAFAEL MARTINEZ GUTIERREZ jaunak udalerrri horretako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zk. Epaitegian ordezeko epaile kargua bete dezan, Nicole Hernandez Gonzalez titularrari BJLOren 373.3 artikuluko baimena eman baitzaio 2024ko azaroaren 7 eta 8an ikastaro batera joateko.

Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

*Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanoari, 30 egunez iragarki-
taulan argitara dadin.*

Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran".

2.6 PRESIDENTEAREN 2024KO AZAROAREN 13KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, CRISTINA BALBOA DÁVILA ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 13an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

"«Bilboko epaile-magistratu dekanoak CRISTINA BALBOA DAVILA ordezeko epaile andrearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi..

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, Salak erabaki du Bilboko epaile-magistratu dekanoak egindako deia

berrestea CRISTINA BALBOA DAVILAK udalerrri horretako Lehen auzialdiko 5 zk.ko Epaitegian ordezeko epaile gisa jardun dezan, titularrari 373.5 art.aren baimena eman baitzaio, 2024ko azaroaren 18an.

Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 egunez iragarkitaulan argitara dadin.

Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.

2.7 - PRESIDENTEAREN 2024KO AZAROAREN 18KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, CRISTINA RODRIGUEZ RUIZ ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 18an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

“Gasteizko epaile-magistratu dekanok CRISTINA RODRIGUEZ RUIZ ordezeko epailearen alde egindako deia berri eman da. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, Salak erabaki du Gasteizko eta bere barrutiko epaile-magistratu dekanok egindako deia berrestea CRISTINA RODRIGUEZ RUIZ udalerrri horretako Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko 1 zk.ko Epaitegian ordezeko epaile gisa jardun dezan titularraren XXXgatik 2024ko azaroaren 21ean.

Deia berretsi da gobernu-sala honek 2022ko abenduaren 16ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpena jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 egunez iragarkitaulan argitara dadin.

Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.

2.8 PRESIDENTEAREN 2024KO AZAROAREN 18KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, MIREN IRUNE FERNANDEZ ARIAS ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 18an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

“Bilboko epaile-magistratu dekanok MIREN IRUNE FERNANDEZ ARIAS ordezkotzailearen alde egindako deialari berri eman da. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, Salak erabaki du Bilboko epaile-magistratu dekanok egindako deialari berrestea MIREN IRUNE FERNANDEZ ARIAS andreak udalerritar horretako Lehen auzialdiko 14 zk.ko Epaitegian ordezkotzaile kargua bete dezan, titularra 2024ko azaroaren 21 eta 22an ikastaro batera joango delako.

Deialari berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dakiote Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 eguneko iragarkitaulan argitaratu dadin.

Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.

3.- Bake-epailei buruzkoa

3-1 - LEIOAKO (BIZKAIA) BAKE-EPAILE TITULARRAK UKO EGITEA.

Salari Adiran Benito-Butron González jaunak, Leioako (Bizkaia) bake-epaile titular izendatuak, karguari uko egiten diola jakinarazteko komunikazioaren berri eman zaio.

Adiran Benito-Butron Gonzalez jaunak Leioako (Bizkaia) bake epaile titularren karguari uko egitea onartzea erabaki du salak.

Adieraz bekio udalerritar horretako udalari bere osoko bilkurak atzerapenik gabe egin behar duela Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. artikuluan eta hurrengoetan eta bake-epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan bake-epaile titularren kargurako aurreikusitako proposamena.

3.2 - BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO BATZORDE IRAUNKORREKO LANGILE JUDIZIALEN ZERBITZUAK BIDALITAKO JAKINARAZPENAREN KONTU EMATEA, NICOLE HERNANDEZ GONZALEZI EMANDAKO ZERBITZUENGATIK DIETAK ETA JOAN-ETORRIEN GASTUAK KOBRATZEARI BURUZKOA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko langile judizialen zerbitzuak 2024ko azaroaren 12an igorritako komunikazioaren berri eman zaio Salari. Komunikazio hori Orozkoko (Bizkaia) Bake Epaile Maria Isabel Intxaurbe Eguskitzaren alde, Laudioko (Araba) Bake Epaitegian emandako zerbitzuengatik dagozkion kalte-

ordainen gaineko dietak eta lekualdatze-gastuak kobratzeari buruzkoa da, maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Sala jakinaren gainean dago

4.- Diziplina-arloa

(Gairik gabe)

5.- Laguntza-neurriak eta jarraipena

5.1. FUNTZIOAK ALDATUTAKO ZERBITZU-EGINKIZUNERAKO DEIALDIA, DONOSTIAKO LAN ARLOKO 5 ZK.KO EPAITEGIRAKO, ETA PRESIDENTEAK 2024KO AZAROAREN 11N HARTUTAKO ERABAKIA BERRESTEA, ZEINA BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOKO 160.7 ARTIKULUAREN ARABERA, PRESAKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, HARTU BAITZEN.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuak bidalitako komunikazioaren berri eman zaio Salari. Komunikazio horren bidez, Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegia indartzeko neurri bat hartzeko premiaren aldeko txostena eman da, eta Auzitegi Nagusiak Huelvako Lan-arloko 3 zk.ko epaitegiko magistratu Martin Jose Mingorance Garcia jaunaren, alde proposatutako funtzioak aldatutako zerbitzu eginkizunaren aurkako txostena eman du.

Salak aho batez erabaki du presidenteak 2024ko azaroaren 11n hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat hartutakoa, premiazko arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

"Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuak bidalitako komunikazioaren berri eman zaio Salari. Komunikazio horren bidez, Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegia indartzeko neurri bat hartzeko premiaren aldeko txostena eman da, eta Auzitegi Nagusiak Huelvako Lan-arloko 3 zk.ko epaitegiko magistratu Martin Jose Mingorance Garcia jaunaren, alde proposatutako funtzioak aldatutako zerbitzu eginkizunaren aurkako txostena eman du.

Botere Judizialaren Lege Organikoko 160.7 artikuluan ezarritakoarekin bat, presako arrazoiei dagokienez, kontuan hartuta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuaren aurreko txostenaren edukia, bai eta Donostiako dekanok 2024/09/03an egindako proposamena ere, honako hau erabaki da: Donostiako Lan Arloko 5 zk.ko Epaitegirako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizun baterako deialdia egitea, jarraian zehaztuko diren baldintzen arabera.

Botere Judizialaren Lege Organikoko 216 bis artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, adierazitako laguntza judizialeko neurria Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari proposatzeko asmoz, ERABAKI DA FUNTZIOAK ALDATUTAKO ZERBITZU-EGINKIZUN bat eskaintzea Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegirako, oinarri hauen arabera:

Lehenengoa.- Eskaintzen den laguntza judizialeko neurriaren definizioa.

5-1 - Funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna, Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegirako

Bigarrena.- Jarduera-plana.

Eginkizundunak astean bi seinalamendu-egun egin beharko ditu, astelehena eta/edo osteguna eta/edo ostirala. Egun horiek aukeratzeko arrazoia judizio-aretoak eskura izatea da; izan ere, Justizia Jauregia prest dago egun horietan judizio-aretoak emateko.

Seinalamendu-egun bakoitzean 7 judizio egingo dira. Zerbitzu-eginkizunaren ardura izango diren prozedurak II. eta III. eranskinetan zehazten dira, eta egindako proposamenen jasotzen dira.

Hirugarrena.- Neurriaren iraupena.

Errefortzu-neurriaren hasierako iraupena 6 hilabetekoa izango da, urtarrilaren 13aren astetik uztailaren 13aren astera.

Laugarrena.- Lehentasunezko egokitasun-irizpideak.

1. Eskatzaile bat baino gehiago egonez gero, gobernu-salak proposatuko ditu, lehentasunez, egokienak iruditzen zaizkionak, eta inguruabar hauek baloratuko ditu:

a) Epaile edo magistratu eskatzailea indartu beharreko epaitegi edo auzitegiaren jurisdikzio-ordena berekoa izatea. Lehentasuna emango zaio espezialitatea egiaztatzeari, eta, halakorik ezean, jurisdikzioan deialdi honen aurreko hamabi urteetan zortzi urte egon izanari, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 330.2 artikulua aurreikusi bezala.

b) Eskatzailearen destinoa non dagoen eta distantzia.

c) Titularra den organoaren egoera.

d) Eginkizuna zein autonomia-erkidegotan egingo den aintzat hartuta, bertako zuzenbidea edo hizkuntza eta zuzenbide substantiboa ezagutzea.

Aurreko irizpideen balorazioa batera egingo da, eta horiek azaltzeko jarraitu den ordenak ez du batzuen eta besteen arteko lehentasunik zehaztuko.

2. Aurreko inguruabarren baterako balorazioak eskatzaileen artean desberdintasun nabarmenik sortzen ez badu, beste inguruabar batzuk baloratu ahal izango dira, hala nola antzintasun profesionala, neurriaren xede den izaera bereko edo antzeko organoetan jardutea, organoaren berezko gaietan edo organoaren egoerarako garrantzitsuagoak diren gaietan prestakuntza espezifikoa izatea, argitalpenak eta epaile magistratu laguntzaileak aztertu behar dituen gai eta auzigaiekin zerikusia duten beste merezimendu profesional batzuk. Familia-bizitza uztartzeari buruzko inguruabarrak ere kontuan hartu ahal izango dira.

Era berean, irizpide horien balorazioa batera egingo da, eta horiek azaltzeko jarraitu den ordenak ez du batzuen eta besteen arteko lehentasunik zehaztuko.

Bosgarrena.- Eskabideak formalizatzea: modua, tokia eta epea.

Interesa duten epaile eta magistratuek dagokion eskaera egin beharko dute gobernu-kudeaketako aplikazioaren bidez.

Eskabideak aurkezteko epea azaroaren 20an amaituko da.

Seigarrena.- Deialdiaren publizitatea.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 216 bis 3.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta 2007ko azaroaren 13ko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorraren 69.2 erabakia betez, eskaintza hau argitara eman eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidali behar zaio horren kopia bat, bere webguneko epaile eta magistratuen extranetean sar dadin, 2007ko azaroaren 29ko Batzorde Iraunkorraren 30. erabakian aurreikusitako moduan.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

Jakinaraz bekio erabaki hau Donostiako epaile-magistratu dekanuari.

Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.

Presidentearen 2024ko azaroaren 11ko Erabakia betez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan, presako arrazoiei dagokienez, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 350.1 artikulua aplikatuz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 26. bis 3.1 artikuluan aurreikusitako publizitatea egitea xedatu zen karrera judizialeko kideen artean, Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegirako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizun baterako, 6 hilabeteko epe luzagarri baterako.

Zerbitzu-eginkizuna iragartzeko irekitako epea igarota, honako eskaera hauek jaso dira:

Lehentasunezko lege-irizpideak: 216 bis 3						
Eskatzailea	Jurisdikzioa	Lekua eta destinoa	Organoaren egoera 2024ko 2. hiruhilekoa			Hizkuntza/EAEko FZ
			Sartutakoak	Ebatziak	Izapidetzen	
LEYRE PEREZ RODRIGUEZ	Arlo zibila eta zigor-arloa	Gernika-Lumoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia	Arlo Zibila 130 Zigor-arloa 158 GUZTIRA: 288	Arlo Zibila 203 Zigor-arloa 127 GUZTIRA: 330	Arlo Zibila 627 Zigor-arloa 297 GUZTIRA: 924	Hizkuntza: Ez dago jasota EAEko FZ Bai
MARTIN JOSE MINGORANCE GARCÍA	Lan-arloa	Huelvako Lan-arloko 3 zk.ko Epaitegia	323	218	1664	Hizkuntza: Ez dago jasota EAEko FZ Ez dago jasota
IBAI YERRO ARRIBILLAGA	Arlo zibila eta zigor-arloa	Tolosako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3 zk.ko Epaitegia	Arlo Zibila 91 Zigor-arloa 59 GUZTIRA: 150	Arlo Zibila 164 Zigor-arloa 77 GUZTIRA: 241	Arlo Zibila 376 Zigor-arloa 507 GUZTIRA: 883	Hizkuntza: Bai EAEko FZ Bai
LOURDES ARIAS VILUMBRALES	Arlo zibila eta zigor-arloa	Eibarko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko	Arlo Zibila 290 Zigor-arloa 213 GUZTIRA: 503	Arlo Zibila 165 Zigor-arloa 42	Arlo Zibila 824 Zigor-arloa 904 GUZTIRA: 1728	Hizkuntza: Ez dago jasota EAEko FZ Bai

		1 zk.ko Epaitegia		GUZTIRA: 207		
1/2019 Jarraibideko irizpideak						
Eskatzailea	Eskalafoia	Prestakuntza	Antzeko organoetan jardutea	Argitalpenak	Kontziliazioa	Lanpostu hutsa ordezteko mekanismoa
LEYRE PEREZ RODRIGUEZ	4900	Ez dago jasota	Bilboko Lan-arloko 1 zk.ko Epaitegia	Ez dago jasota	Bai	
MARTIN JOSE MINGORANCE GARCIA	3501	Bai	Bai	Ez dago jasota	Ez dago jasota	
IBAI YERRO ARRIBILLAGA	509, epaileen kategoriakoak	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota	
LOURDES ARIAS VILUMBRALES	4600	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Bai	

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 13an hartutako erabakia berrestea. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua, presako arrazoiei dagokienez, eta eskaintzen den eginkizunean parte hartzeko eskatzen diren merezimenduak betetzen dituzten eskatzaileen inguruabarrak eztabaidatzeari ekin zaio, BJLOren 216 bis artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Irizpide horien arabera, Salak baloratzen du jurisdikzio-ordena bereko hautagai bakarra, Martin Jose Mingorancie Garcia jauna, bere jatorrizko organoan ebatzi gabeko auzi-kopuru esanguratsua du, eta ebazten duen auzi-kopurua sartzen zaiona baino nabarmen txikiagoa da. Horregatik, uste du ez dela egokia eskaintako zerbitzu-eginkizunerako proposatzea.

Gainerakoei erreparatuta, lege-irizpideei eta lan-arloko jurisdikzio-ordenako izangai gehigarriak ez dagoenez, bidezkoa da jatorrizko organo

judizialaren egoera eta hizkuntza-ezagutzak eta foru-zuzenbidekoak haztatzea. Ikuspegi horretatik:

- Leyre Perez Rodriguez titularra den organoaren egoera egokia da, eta foru-zuzenbideari buruzko ezagutzak ditu.
- Ibai Yerro Arribillaga jaunari dagokionez, Salak baloratu du titularra den organoaren egoera zuzena dela eta foru-zuzenbideari eta autonomia-erkidegoko berezko hizkuntzari buruzko ezagutzak dituela.
- Lourdes Arias Vilumbrales andreari dagokionez, titularra den organoaren egoera Leyre Perez Rodriguez andrea eta Ibai Yerro jauna titular diren organoetan baino okerragoa dela baloratzen da; izan ere, ebazpen maila nabarmen txikiagoa du eta foru-zuzenbideari buruzko ezagutzak ditu.

Horiek horrela, Salaren ustez lehentasunezko hautagaiak Leyre Perez Rodriguez eta Ibai Yerro dira. Legezko irizpideak kontuan hartuta, aipatutako bi hautagaietako bat ere ez denez nabarmentzen, Jarraibidean ezarritako irizpide osagarrietara jotzen da, eta horien arabera, Leyre Perez Rodriguez andreak antzinasun handiagoa du eskalafoian, eta jurisdikzio-eginkizunak bete ditu antzeko organoetan. Horregatik, Salak, aho batez, honako hau proposatu du eginkizunerako: Leyre Perez Rodriguez.

Salak erabaki du Leyre Perez Rodriguez and.aren aldeko proposamena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aurkeztea, Donostiako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegrako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna betetzeko. Jakinaraz bekie erabaki hau Donostiako epaile dekanuari, proposatutako magistratuari eta eskaria onartu ez zaien eskatzaileei.

5.2 BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN BATZORDE IRAUNKORRAREN 2024/11/12KO ERABAKIAREN BERRI EMATEA, ESKATUTAKO ERREFORTZU-NEURRIEI BURUZKO BAIMEN EKONOMIKOAK UKATZEARI BURUZKOA DENA.

Sala jakinaren gainean geratu da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrek 2024/11/12ko bileran hartutako Erabakiaz. Erabaki horretan, eskatutako errefortzu-neurriei buruzko baimen ekonomikoak ukatzea erabaki zen. Baimen ekonomikoa ukatzeak eragindako indartze-neurrien artean dago Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko 2. Atalerako indartze-neurria, hau da, funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizun bat udalerri horretako Instrukzioko 2 zk.ko Epaitegiko titularra den Daniel Sanchez de Haro jaunaren alde.

6.- Bestelako gaiak

6.1 1/2024 JARRAIBIDEA, AZAROAREN 6KOA, BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN OSOKO BILKURARENA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuraren azaroaren 6ko 1/2024 Jarraibidearen berri eman zaio Salari, zeina Auzitegi Goreneko, Auzitegi Nazionaleko eta Auzitegi Nagusietako gobernu-saletarako hauteskundeetan pertsonalki aurkeztu ezin den hautesle baten boto-dokumentazioa emateko bete behar diren formalitateei buruzkoa baita,

Sala jakinaren gainean dago.

6.2 ABUZTUAREN 2KO 3/2024 LEGE ORGANIKOAREN XEDAPEN GEHIGARRIKO LANTALDEA OSATZEN DUTEN KIDEEK TXOSTENAK BIDALTZEKO ESKAERA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bidalitako komunikazioen berri eman zaio Salari, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren barruan lau kidek osatutako lantalde bat eratu dela jakinarazteko. Kide horiek erabaki dute elkarrizketak egitea Europar Batasuneko eta Europako Kontseiluko erakundeetako arduradunekin, bai eta elkarte judizialekin, Auzitegi Nazionaleko gobernu-salekin, Auzitegi Nagusiekin eta Auzitegi Gorenarekin ere. Gobernu Salaren ekarpenak jasotzeko, galdetegi bat bidali zuten, 2024/11/15a baino lehen bete beharrekoa. Epe hori 2024/11/19ra arte luzatu zen.

Era berean, Salari jakinarazi zaio Luis Angel Garrido Bengoetxea jaunak bidalitako galdetegia.

Eztabaidatu ondoren, Salak erabaki du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2024ko irailaren 25eko bilkuran sortutako lantaldeari helaraztea eskatutako galdetegiaren erantzunak, abuztuaren 2ko 3/2024 Lege Organikoaren xedapen gehigarrian aurreikusitako txostena egin dezan. Hona hemen erantzunak, hitzez hitz:

"Zure ustez, zer sistema berri sartu beharko litzateke epaileen eta magistratuen artean izendatutako bokal judizialak hautatzeko? Konstituzioaren 122. artikuluan xedatutakoaren arabera, hiru bosteneko gehiengoak onartu behar du hautapen hori, eta haren independentzia bermatu behar du, eta zehazten den epaile eta magistratuen parte-hartze zuzenarekin, Europako Batzordearen Zuzenbideko Estatuaren txostenak eta Europako estandarrik onenek positiboki ebaluatu ahal izango dute, Beste elementu batzuk alde batera utzi gabe, aurreko galderaren erantzunak honako gai hauei buruzko argudioak izan ditzakete:

1. *Garrantzizkotzat jotzen al da jatorri judizialeko bokalak hautatzeko sistema erreformatzeko proposamenak ziurtatzea karrera judizialeko hiru kategorietako kideak egongo direla? Auzitegi Goreneko magistratuak, magistratuak eta epaileak? Nola?*

Jatorri judizialeko hamabi kideak karrera judizialeko kide guztiek hautatu beharko lituzkete. Katetoria guztien presentzia bermatzeko, bokaletako bi kide Auzitegi Goreneko magistratuak izango dira, zortzi magistratuak eta bi epaileak.

2. *Garrantzizkotzat jotzen al dira jatorri judizialeko bokalak hautatzeko sistema erreformatzeko proposamenean kontuan hartu behar diren beste faktore batzuk, hala nola karrera judizialeko kide elkartuak eta elkartekide ez direnak, kide anitzeko edo pertsona bakarreko organo jurisdikzionaletan lan egiten duten karrera judizialeko kideak, jurisdikzio-ordena desberdinetako kideak eta lurraldeak?*

Bokal horiek hautatzeko sistemak hauteskunde-araubide orokorraren antzeko sistema proportzional baten bidezko bozketari erantzun behar dio. Horrela islatzen da karrera judizialaren aniztasuna. Ondore horietarako, karrera judizial osoa ordezkatzeko neurri egokiak hartu behar dira, elkartuak izan edo ez.

6.3 GASTEIZKO DEKANOAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA, 2024KO AZAROAREN 6KOA, KORU JUDIZIALAK AURKEZTUTAKO ESKAERARI BURUZKOA

Salari jakinarazi zaio Gasteizko dekanok hartutako erabakia, 2024ko azaroaren 6koa, koru judizialak aurkeztutako eskaerari buruzkoa. Honela dio, hitzez hitz:

"Jaso dugu Arabako Koru Judizialak 2024ko azaroaren 6ko data duen idazkia, Gasteizko Justizia Jauregiko sarrerako hallean 2024ko abenduaren 18an ekitaldi bat egitea eskatzeko, tarima altu bat instalatuta. Erants bedi.

Auzitegi-tako gobernu-organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 4 ñ) artikularekin bat: "Eraikin judizialeko edo horien bulegoetako funtzio judizialaz kanpoko jarduerak ezin izango dira gauzatu Gobernu Salaren, higiezinaren titulartasuna dagokion Administrazioaren eta, hala badagokio, eskumen konkurrenteak dituzten gainerako Administrazioen akordiorik gabe. Desadostasunik izanez gero, dagokion Batzorde Mistoak aztertuko du gaia, eta egoki iritzitako proposamenak egingo ditu".

Eskaeraren edukia ikusita, EATri helarazpena egiten zaio txostena egin dezan LANKIDE EVENTOS kanpoko enpresak aipatutako tarima egin eta instalatzeko baimenaren edo aurka egitearen inguruan, inolako kosturik gabe, eta korua arduratuko da hori kudeatzeaz.

Halaber, eskaera hori EAEko Auzitegi Nagusiari helarazi zaio, eta jakinarazi da Dekanotza honek ez duela aurkakotasunik horren aurka; izan ere,, adierazi du ez duela inolako inplikaziorik izango egun horretarako zehaztutako zeregin judizialekin jarraitzeko.

Erabaki hau Arabako EATko arduradunari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari jakinarazi behar zaie, dagozkion ondorioetarako ".

Salak Arabako Koru Judizialari jarduteko baimena ematea erabaki du, Gasteizko Justizia Jauregiko sarrerako hallean tarima altu bat jartzeko, 2024ko abenduaren 18an.

Helaraz bekio erabaki hau Gasteizko epaile dekanolari

ERABAKIAK JAKINARAZTEA.

Salak aho batez erabaki du bilera honetan hartutako erabakiak interesdun guztiei jakinaraztea.

Aztergai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, zeina 10:30ean hasi eta 11:30ean amaitu baita, eta akta hau egiten da, presidenteak sinatuta. Presidenteak Fede ematen dut.